

## ARBASOEN LORRATZEAN (VI)

Erlijiotasuna, gaur egunerako desegokia den mozorro-jantzi bat bailitzan, zapuztu nahi lukete zenbaitek. Antigualeko moldeetan katibu dauzkaten lotura jasangaitz hori eten eta gaurkotasunerantz jo. Mundu askatuaren atzetik hegan joan nahi lukete, baina debekuz beterik ikusten dute ingurumaria. Amets-muga liluragarri hori eskuratzeko oztoporik larriena, erlijioa. Mamu ilun horren geriza aurkitzen dute inguruan. Kezka, ernegu, konplexu-iturri den erlijiozko mamu erraldoia!

Baina zer ote da hain nekagarri zaien hori? Ez, ez da kendu-ipiniko soineko bat. Ez da nahi denean hartu eta nahi denean utz daiteken zerbaite. Gure giza-izateari berez-berez dariona da erlijio-sentipena. Benetako sinesmenak —fedea, esango nuke hobeki— huts egitean, beste forma batzuk hartuko ditu, baina erlijiotasuna norbere baitan guztiz suntsitzea ez da berehala lortzekoa, berezkoa baitugu. Horretan norabidea galdurik ibiltzea, besterik da. Honela daudenentzat, erlijioa zama eramangaitza gertatuko da, behar bada.

Dena dela, auzi hau sarrera bezala utzirik, neure orain arteko harian jarraituko dut, euskaldunen erlijiotasun-agerpen batzuk azpimarratu nahirik. Gaur, batez ere, euskal emakumearen lehengo era-

kunde bat arakatuko dut, haren fedearen lekukotasun sendoa ematen baitigu.

#### Serorak

Larramendik COROGRAFIA DE GUIPUZCOA deritzan liburuan luze dihardu Gipuzkoako serorez; luzeago oraindik, A. Lizarraldekin PRIMER CONGRESO DE ESTUDIOS VASCOS liburuan.

Aintzinako diakonisen ondorengoak direla uste du Larramendik; eta kontzilio batzuk aipatzen ditu. Espainiako kontzilioetan ez omen da ezer esaten, baina bai beste batzutan. Calcedonia-koan, adibidez, diakonadutza hartzeko, emakumeak, 40 urte gutxienez izan behar dituela esaten da; behin sagaraturik, eliz-zerbitzuan ihardun ondoren ezkontzen dena, eskomikaturik geratuko da beronen senarrarekin batera. Beste horrenbeste diote Orleans eta Erromako kontzilioek ere. Erromakoa, 72Lean izan zen. Gerora debekatu egin zen emakumeen sagaratzea, eta kontzilio batetan baino gehiagotan ageri da hori.

Askoz lehenagotik ere ezagunak dira Laodizeako kontzilioan 367.ean edo 372.ean emakumeei ezarritako debeku batzuk. Diakoniarik zaharrenek, beste emakumeek baino aurrerago, toki berezian zuten euren aulkia; eta debekaturik zegoen hauek euren buruei «presbitera» eta «presidenta» izena ematea. San Epifaniok ere badio apaizgintza ez, baina emakume guztien artean gorengo maila zutela diakonisek Elizan.

Beraz, eliz-emakumeak ziren eta haien bizibidea EHhari zerbitzea. Apezpikuak eskuak ezarriz sagaritzen zituen eta horrela eliz-estatuan sartu. Behin urratsa emanez gero, horretan iraun behar; ez zegoen atzera egiterik ez ezkontzerik. Oraingo Gipuzkoako serorak —dio Larramendik— ez dira Apezpikuaren esku-ezarketaz sagaratuak, baina beste zer guztietan, aintzinako diakonisak bezala dira. Elizen zerbitzutan dihardute, haiek bezala. Gipuzkoan, serora sartzea erlijio-bizitzan (lekai) sartzea bezalatsu da. Hala dio A. Larramendik bere garaiko serorez ari dela.

Serora izendapena agirikoa izan ohi zen; jende aurrean egina. Izendapena egin ondoren, apezpikuak eman behar zuen bere oniritzia, serore-gaiaren bizitza eta ohiturak aztertuz. Apezpikuak agiria ematen dio; legez eta eskubidez ofizio hori betetzeko baimena. Sero-

retzaz jabetu aurretik, dotea ordaindu beharko du. Seroretza guztiak ez ziren berdinak izaten; horregatik seroretzaren eta hartuko duen alogeraren arauera, halako dotea. Ordena ezagunen batetako soinekoa erabili ohi zuten: San Franziskorena, Santo Domingorena edo ta Karmengoa, gehienetan. Haien egitekorik gehinenak hauek dira: elizaren garbikuzia, aldaretako apainketa, zamauen garbitzea, argizaiola eta Gure Jaunaren argiari kargu egitea. Bestaldetik, elizkizunetan, emakumeen zeremoniala ere eurek zuzendu ohi zuten. Hileta, eliz-bira eta beste ohikunetan serorak izaten ziren aitzindari. Norbait hiltzen zenean, berak joan behar zuen senide eta hauzokoen aurretik hildakoaren etxetik elizaraino, Gero, elizkizuna eta ehorzketa (lur-ematea) bukatutakoan, beste horrenbeste egiten zuen, baina alderantzizko bidean. Behin hildakoaren etxe ondora iristerakoan, atarian geratu eta otoitz egiten zuten haren arimaren aide, eta serorak, euskaraz nahiz latinez, «Goian bego» edo «Requiescat in pace» esanez banatu ohi ziren. Eliza batzutan, elizako atea itxi eta irekitzea ere seroren esku zegoen.

Larramendik, Gipuzkoako elizetan seroren erakundea galtzea tamalgarriztat jotzen du. Aintzinako diakonisen hondar bezala Gipuzkoan bakarrik iraun dutenez, horregatik bakarrik ere mereziko luke gure begirunea —dio Larramendik. Baina horrez gainera, aide ederra dago serora duten elizetatik sakristau hutsa dutenetara! Ez diete haiei hurrik ere ematen garbikuzian, txukuntasunean eta elizkizunen taxuan. Ermitetakoak, ostera, batez ere ermitan bertan bakardadean bizi behar dutenak, arrisku handitan daudela dio Josulagun jakintsuak. Beraz, ermitetako seroretza kendu eta haien ordeztu gizonetako padarrak jartzea aholkatzen du. Irunako sinodoko agirietan «seroras» edo «freilas» deritze. Euskaraz, aintzina, erlijiosoei zeritzela horrela, diosku Larramendik; baina parroketan laguntzen duten hauei ere, gaur egun sekularrak izan arren, berdin deritzela.

A. Jose Adrian© Lizarralde Franziskotarrak beste ikuspegi batez dihardu «Origenes de la vida claustral en el Pais Vasco» izeneko lanean. Honen xedea komentuetao bizikera horren sorrera ikertzea zenez, elkarrekin bizi ziren serore-erakundeak aztertzen ditu batipat. Bide batez edo izan ezik, ez du aipatzen bestelakorik. Jakina denez, emakume hauek —batzuk behintzat— elizen zerbitzutan ihardun eta elizgizonen laguntzaile eskergaitzak izanez gainera, euren erlijiotasun berezi hori elkarrekin bizi izateko lera izan dute. Hor dute sustraia

seroretxeak —erderaz, 'beaterios'— gerora benetako lekaime-bizitzaren hazi izango direnak.

Bizkaian sortu zen lehen komentua, 1357. urtean On Tellok eraikitako Bermeoko Franziskotarrena izan zen. Baina komentu hori izan baino lehen, herritar emakume batzuk elkartzen omen ziren bakardadeko etxe batetan, munduko zurrunbilotik urrun, otoitz eta kristau-ohiturei beteziki emanak bizi izateko. Haien izenari dagokionez, A. Lizarralde honela dio: «El pueblo las llama 'beatas', 'sororas', 'seroras', 'freylas', 'freiras', 'terciarias'. Oraindik izen hauen oroitzapenak irauten du gure artean, baita haien lanarenak ere, orain sakratarizerbitzua egiten duten emakumeei 'serora' edo 'beatia' esaten baitzaie. Herriak estimu handitan zituen eta bere eskupekoz eta era guztietako laguntzaz babestu ohi zituen behar aldian.

Bai herri-agintariek eta baita eliz-agintariek ere ongiletzat eta erlijioaren eta ohitura onen eredutzat zituzten. Aberatsek ohoregarri legez zuten holako talderen baten esku euren ondasunak uztea; alabaren bat ere haien artean sartuz gero, ez zitzaion atzera biderik ematen, bestetara baizik. Oinatiko 'Zubikoa' seroretxean Oinatiko Kondearen alaba bat zela, diosku A. Lizarralde, behin eta berriro bertako nagusi izana. Azpeitiko S. Pedro ermitako seroretxearen sorrera, Inazio Santuaren lehengusina bati zor omen zaio. A. Lizarralde dioenez, ez dago hazi samarra den herri edo ta hiririk Erdi Haroan seroretxeren bat edo beste ez duenik. XVII. mende aurretiko komenturik gehienek, seroretxeetan omen dute hasiera. Goian aipatu dugunez, Bermeoko Franziskotarren komentua izan baino lehen sero-reak zeuden han. Durangoko handikietariko lau alaba bildu ziren hiritik ate zegoen Santiago ermitan eta hantxe du sorrera gaurko S. Antonio komentu ospetsuak. Arrasaten bi seroretxe zeuden. Bilbon, berriz, sei edo. Eta horrelaxe beste toki batzutan ere.

Markinakorik ez da hor aipatzen, baina J. J. Mugartegi-ren 'LA VILLA DE MARQUINA' liburuan agiri zehatzak datoz. Xemeingo elizaren ondoan S. Agustin deritzan aintzina-aintzinako etxe bat dugu. Hortik Abesua kalera jotzen duen kalea ere izen berberaz ezagutzen da. 1.547.etik hortxe bizi ziren Merzedeko lekaimeak; sorrera-agiri ta guzti hortxe kokatuak. Lehen, 'Monasterio de la Piedad' zeritzan, baina 1.62 Lean gaur egun duen izena ezarri zioten. Urte horretan hartu zutela —dio Mugartegik— buruestalki beltza han bizi ziren Merzedariak eta klausura-legea zin egin. Baina 1.635.eko urriaren

18.ean —zergatik ez dakigula— 'clandestinamente', dio Mugartegik, Abesurara aldatu ziren, Gure Jauna, kanpaiak, elizako gauzak eta beharrezko zituztenak harturik. Hala ere arrazoi sakonak izango zituztela, dio, tokiz aldatzeko, horren kontra zeudenek, gora jota gero ere ez baitzuten lortu lekaimeak toki berritik lehengoratzetik. Gaur egun ere hantxe daude eta bizilekua eta elizaz gainera, ikastetxe bikain bat dute.

Merzedariak utzitako tokira, S. Agustinen serorak etorri ziren; Ordura arte, Dominga Egierreak 1.655.ean eraikitako etxe desegoki batetan zeuden. Markinako sarreran zen etxe hori, Inazio Ugarte zeritzan baten etxeari zeutsala. Horko serorak, Durangoko Agustindarren agindupekoak ziren, eta haietariko batek idatzirik agiri bat dakar liburu honek, etxeon egoera eta xehetasunak emanez.

Historian zehar, gorabehera larriak izan ditu seroren erakunde honek. Herriak ia beti ontzat izan duela dirudi. Ez, ordea, beti eliz-agintedunek. Mirestekoa dela —dio A. Lizarralde— hainbeste ta hainbeste debeku eta oztoporen artean, gaur arte iraun izatea. Parrokia-libururik ez dago ia Pastoral Ikustaldietako aginduren bat seroren aurka ez duenik. Agindu hauek, ermitetako bakardadean seroretza betetzen zutenen aurka emanak dira ia beti.

Logroñon 1.620. urtean ospaturiko Sinodoan, On Pedro Gonzalez Castillo apezpikuak emandako agindu hau agertzen da: Eliz zerbitzuan ez dadila 'freira' edo 'serora' tituludun emakumerik izan. Apezpiku beronek debekatu zituen lehenago Bizkaian ere.

Irunan 1.540. urtean ospaturiko sinodoak serorez ihardun zuen; baita lege batzuk eman ere. Hala ere, erakundea zeharo desegitea zen haren asmoa, bideratzea eta ermitetan bizi ziren seroren moralitateaz kargu hartzea baizik. Agindua hauxe zen: inor ez dadila ermitan edo bakardadean bizi apezpikuaren baimenik gabe eta haren bizitza ondo aztertua izan gabe. Sinodoan bertan esaten da agindu hori zergatik emana den «que debaxo de titulo de devocion, muchas personas, assi hombres, como mujeres, van a velar a Iglesias, dancan, y se hacen representaciones, y se dicen muchos cantares deshonestos, y se cometen muchas ofensas a Dios nuestro señor, de donde se siguen muchos escandalos: sobre lo qual conviene Nos proveer... y el clerigo, 6 serora, 6 beata, 6 hermitano, que tuviese cuydado de la dicha hermita, que no la tuviese cerrada, como arriba se dize, de noche, y permitiere las dichas velas sea expelido de ella...».

Bizkaian, orduko agirietan, tirabira latza nabari da auzi honetan. EH-zagintariak zeuden aide batean (seroren aurkakoa, alegia) eta herri-agintariak eta herria bera bestean. Azken batez Erromak berak ere seroren kontra eskuartu arren, norbaitek eutsi die, ia-ia atzorarte iraun baitute.

Gipuzkoako herrietan —batzutan behintzat— erakunde honen lorratzak eta oroitzenak oraindik nabari dira. Azkoitian, adibidez, serorarena, belaunez belaun zetorren kargua izan dela dirudi. Horrela, familia horretakoei «serorenekoak» esaten zaie deitura bezala: Tomas 'Seroreneko', Erroman 'Seroreneko' eta abar. Azken aldi honetan, Gipuzkoako serorek ez zuten ezkongeez izan beharrik. Eginkizunen aldetik, lehen zituzten eginkizun berdintsuak egin behar izaten zituzten. Eliza eta aldaretako garbikuzia, zama, kandela, argizaiola eta beste elizako gauzen ardura hartu. Emakumeen artean, aurrengo aulkietan egon ohi zen. Beraz, nolabaiteko nagusitasuna dagokio serorari elizan. Ez dago esan beharrik oso emakume otoizlari eta elizarakoa izan dela beti.

Besteak beste, Azkoitian bazen oraintsurarte ohitura bitxi bat: elizarentzakoak ekarri ohi zen: artoa, garia edo hartutako uztaren parte bat laboretan. Elizako atzekaldean hustutzen ziren zorroak, ale-pilo handiak eginez. Eliz-sari hori biltzea eta horretarako gauza guztiak atontzea, seroraren egitekoa izan ohi zen.

Gaur egun, holakoetan ez da lehengorik. Abiada bizian dihardugu denok, beste arazo batzutan murgildurik. Orain, herriska asko erretore gabe gelditu dira eta apaizik ere ez duten herrietan serora izatea ez da errez...

Gizartearen irabiaketa ero honek irunsi ditu lehengo ohitura polit eta bitxi asko.

*Luis Baraiazarra*